



LAZKAOKO
UDALA

**2023KO URTARRILAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxe-mai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko abenduaren 12an egindako bilkurako akta, idazketa akats bat konpondu ondoren onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean ospatuko ez zenez, alkatezaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- REAL SOCIEDAD DE FUTBOL S.A.D.REKIN HITZARMEN PROPOSAMENA.-

Real Sociedad de futbol S.A.D. eta Lazkaoko Udalaren artean sinatzea proposatzen den hitzarmena aurkeztu da batzordera. Honakoa dio:

**"REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, S.A.D. ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Donostia, 2023ko urtarrilaren 12an

BILDUTA

Alde batetik, Jokin Aperribay Bedialauneta jauna (NAN zk.: 15.992.112-M), REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, S.A.D.ko presidente gisa; egoitza soziala: Anoeta pasealekua 1, 20.014, Donostia, Gipuzkoa (aurrerantzean, REAL SOCIEDAD).



LAZKAOKO
UDALA

Bestetik, Kepa Zubiarrain Erauskin jauna (NAN zk.: 34096652A), Lazkaoko alkate den aldetik, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko buru izanik (IFK: IFK: P2005300E;

helbidea: Euskadi Enparantza, 1, 20.210, Lazkao, Gipuzkoa), udal idazkariaz lagunduta egintzaren fede emateko.

AZALTZEN DUTE

- I. REALaren helburuen artean kirola sustatzea dagoela, eta, bereziki, Gipuzkoako emakumezkoen eta gizonezkoen futbola. Horretarako, kirol, kultura eta gizarte-jarduerak zabaltzearen eta sustatzearen esparruan, REAL SOCIEDADek instalazio eta zerbitzu egokiak sustatu, mantendu eta kudeatzeaz arduratzen da, kirolarien eta, oro har, gizartearen premien arabera kirol-jarduna ahalbidetzeko eta errazteko. Era berean, REAL SOCIEDADek hainbat entitate eta erakunde publikorekin lan egiten du kirolaren garapena sustatzeko.
- II. REAL SOCIEDADen ustez, kirola, oro har, eta bereziki futbola sustatu, hedatu eta hedatzea funtsezko tresna da pertsonen bizitza hobetzen laguntzeko.. Era berean, futbolaren sustapena oso lotuta dago harrobian oinarritutako kirol-eredu bat sustatzearekin, REAL SOCIEDADen helburu diren izaera sozialeko eta kirol-sustapeneko funtzioak betetzeko aukerarik onena baita, egungo eliteko futboleko berezko kirol-eredu lehiakor eta iraunkorra indartzeko.
- III. LAZKAOKO UDALA Lazkaoko (Gipuzkoa) Harizti udal futbol-zelaiaren titularra da, eta bertan LAZKAO K.E.k eta GOIERRI GORRI KLUBAK beren partidak jokatzen dituzte.
- IV. Beharrezkotzat jotzen da Hariztiko udal-zelaiaren instalazioa berritzea eta jokalekua hobetzea.
- V. REALA LAZKAOKO UDALARI laguntza ekonomikoa emateko prest dagoela, LAZKAOKO UDALAK berriki Harizti futbol-zelaian egin dituen hainbat hobekuntza finantzatzeko.
- VI. Agertutako alderdiek interesa dutenez, LANKIDETZA HITZARMEN hau (aurrerantzean, "Hitzarmena") sinatu dute, eta honako klausula hauen arabera gauzatu dute.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.-XEDEA.

Hitzarmen honen xedea REAL SOCIEDADen eta LAZKAOKO UDALAREN artean lankidetzasparru bat ezartzea da, azken horri laguntzeko LAZKAOKO UDALAK berriki Hariztiko udal-futboleko zelaian egin dituen hobekuntzen zati bat finantzatzen.



BIGARRENA.- REALAREN EKARPENA

REALAK BERROGEITA BOST MILA EUROKO (45.000.- €) laguntza ekonomikoa emango dio LAZKAOKO UDALARI. Zenbateko hori 2023ko otsailaren 1ean ordainduko da. Laguntza ekonomikoa ondoren adierazten den kontu korrontean sartuz gauzatuko da:

- Kontu zenbakia: 2095 5049 69 1060024881
- BANKUA: KUTXABANK





LAZKAOKO UDALA

- IBAN: ES17 2095 5049 69 1060024881
- TITULARRA: LAZKAOKO UDALA

HIRUGARRENA.-IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen denean jarriko da indarrean, eta lau (4) urteko iraupena izango du. REALak eta LAZKAOKO UDALAK hitzarmenaren luzapenean interesa izanez gero, alderdiek berariaz eta idatziz adostu beharko dute luzapena.

LAUGARRENA.- LAZKAOKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Hitzarmen honen esparruan, LAZKAOKO UDALAK bere gain hartzen du REAL SOCIEDADek emandako diru-kopuru osoa Harizti futbol-zelaia hobetzeko lanen kostua ordaintzeko erabiltzea. Nolanahi ere, Kepa Zubiarrain Erauskin jaunak, alkate gisa eta Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko buru izanik, instalazioa berritzeko lanak aurretik onartutako proiektu teknikoen arabera egin direla ziurtatu du.

BOSGARRENA.- REALAK HARIZTIKO UDAL-ZELAIAN TEKNIFIKAZIO-SAIOAK EGITEKO ERABAKIA

Hitzarmen honen esparruan, eta instalazioaren titularra den LAZKAOKO UDALarekin eta ohiko erabiltzaile diren LAZKAO K.E eta GOIERRI GORRI KLUBarekin bat etorriz, REAL SOCIEDADek instalazioa erabili ahal izango du LAZKAOtik gertu dauden eremu geografikoetatik datozen jokalaria talentu gaztea erakartzeko eta garatzeko jarduera jakin batzuk garatzeko.

Teknikazio-saioak egiteko REAL SOCIEDADek Hariztiko udal-zelaia erabili ahal izateko, instalazioa erabilgarri egon beharko da.

SEIGARRENA.- HITZARMENA EZ BETETZEA

Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, besteak hilabeteko (1) epean behar bezala betetzeko eskatu ahal izango du, SPAJLren 51.2.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, hitzarmena amaitutzat joko da.

ZAZPIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, alderdiei behar bezala jakinarazten zaie hitzarmen hau sinatzen duten pertsona fisikoen datu pertsonalak kontrako alderdiak tratatu ditzakeela babes-akordio hau betetzeko eta betearazteko helburuarekin, eta tratamendu horren oinarri legitimatzailea apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorren 6.1.b) artikuluan aurreikusitakoa izango da.

Nolanahi ere, alderdien legezko ordezkarien datu pertsonalak pertsona juridiko batean lan egiten duten pertsona fisikoei dagozkienez, interesdunek ez diote beste alderdiari baime-nik ematen datu horiek tratatzeko, atal honetan adierazitakoa ez den beste edozein hel-

burutarako, hau da, kontratu-harremana eta horren garapena mantentzeko, jarraitzeko, kontrolatzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko.

Bi alderdiek bermatzen dute betetzen direla datuak babesteko indarrean dagoen araudiak ezartzen dizkion betebeharrak, eta elkarri kalte-ordaina ematen diote araudi honen edo dokumentu honetan jasotako xedapenen arabera besteari dagozkion betebeharrak ez betetzearen ondorioz jaso dezaketen edozein erreklamazio, zehapen edo isunen aurrean.

REAL SOCIEDADko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jarri ahal izango da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta, hala badagokio, horien aurka egiteko, eramangarritasunerako eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, erreferentziara honako hau adieraziz: Datuen babesa, helbide honetan: Anoeta pasealekua z/g, 20.014, Donostia, edo helbide elektronikoa honetan: dpd@realsociedad.eus

LAZKAOKO UDALEKO Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jarri ahal izango da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta, hala badagokio, horien aurka egiteko, eramangarritasunerako eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, erreferentziara honako hau adieraziz: Datuen babesa, helbide honetan: Euskadi Enparantza, 1, 20.210, Lazkao, Gipuzkoa.

ZORTZIGARRENA.- MISTOA

Alderdiek adostu dute LAZKAOKO UDALAK eta REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, S.A.D.-k ezingo dizkiotela hirugarren bati laga, ez osorik ez zati batean, hitzarmen honen ondoriozko eskubide eta betebeharrak.

Era berean, hitzarmenaren edukia aldatu ahal izateko, alderdiek berariaz adostu beharko dute, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuta.

BEDERATZIGARRENA.- IZAERA JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, garatzeko eta interpretatzeko, administrazio-ordenamenduari jarraituko zaio. Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek berariaz men egingo diote administrazioarekiko auzien jurisdikzioari, seigarren akordioan adierazitako moduan konpondu ezin diren gatazken kasuan.

Era berean, hitzarmen hau sektore publikoko kontratazioari buruzko arauditik kanpo geratzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikulua ezartzen duen bezala.

Eta ados daudela adierazteko, aldeek agiri honen bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako egunean eta lekuan."

Tokiko Gobernu Batzordeak hitzarmen proposamen hau, idazketa akats batzuk zuzendu ondoren, onartzea erabaki du.

IV.- FAKTURAK.-



Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 73 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA SEI euro ETA HIRUROGEITA BAT zentimo (27.386,61 €)takoa onartzea erabaki da.

V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Euskara ikasten ari direnei.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle dira eta emango zaiena 504 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

- Gerriko Kultur Elkarteak.-

Gerriko Ikerlan Bekaren 2022ko ekainetik abendura bitarteko gastuei aurre egiteko, dagokion bigarren ordainketa egitea 2.500 €koa.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.04.334.00 partidatik ordainduko da.

Bestalde, Mintzalagun jarduerarako urteko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzeko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki du Gerriko Kultur Elkarteari 5.050 €ko ordainketa onartzea.

Dirulaguntza hau aurrekontuko 481.02.335.00 partidatik ordainduko da.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lemniskata elkarteak.-

2022an egindako jarduerengatik, 2022 urteko aurrekontuaren 481.03.334.01 partidatik 2.000 €ko dirulaguntza ematea.

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2 € ematearen irizpidea jarraituz, orain bakoitzari 6.007 €ko lehen zatia ordainduko zaio.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

Proposamena egiteko erabili den biztanleen zenbatekoa Lazkaok 2021-01-01era zeuzkan biztanleen zifra ofiziala izan da eta laster 2022-01-01era zeuzkanaren zifra aterako denez, bigarren ordainketa egiterakoan zenbateko horren arabera doituko da urtean eman beharreko guztia.

- Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu den hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

VII.- 2023KO SAN PRUDENTZIO JAIETAKO PROGRAMARAKO PORTADA AUKERATZEKO LEHIAKETA.-

2023ko San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren oinarriak eta sari ordainketaren proposamena aurkeztu dira bere onarpenerako.

Hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Irabazlearentzat 200 €ko sari proposamena onartzea.

Sari hau 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

VIII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei zazpigarren ordainketa egitea:

Merkataria	Zenbatekoa
------------	------------



ROBERTO ELIZBURU HARATEGIA	10 €
GUZTIRA	10 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

- Merkatariei 2022ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Goitia autoeskola	506,40
Julen Irurzun Iraola	160,00
GUZTIRA	666,40

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.430.00 partidatik egingo da.

IX.- LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOARI 2023. URTEKO DIRU EKARPENA.-

Alkateak egindako proposamenaren bidez Lazkaoko Beneditarren Fundazioari honako ekarpena egitea planteatu da:

- Lazkaoko Udalaren 2023. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik, 22.000 €ko ekarpena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Beneditarren Fundazioari proposatutako ekarpena egitea onartu egin du aho batez.

X.- GOIEKI S.A.-RI 2023KO EKARPENAK.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren udalek 2023rako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpenak dagozkio:

- Ekarpen orokorra	52.305,92 €.
- Gizarte arloko ekarpena	5.810,00 €.
- Ateak ireki proiekturako	4.527,93 €.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEKIRi 2023ko ekarpen hauek onartu egin ditu aho batez.

XI.- OSASUN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2022ko aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €tatik, 1.000€ko diru-laguntza ematea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak galdera bat luzatu du. Zineko sotoan konponketak egiteko partida sortu dela eta, ea erabakiren bat hartu ote den jakin nahi du.

Naldaiz zinegotziak erantzun du gaur bertan, horretarako kontratu den enpresa batek azterketa bat egin duela aspektu desberdinak aztertzeko, eta azterketa horren erantzunaren zain daudela orain.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogeita hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



The image shows a handwritten signature in blue ink. To the left of the signature is a faint, circular official stamp. Below the stamp, the words "LAZKAO" and "100 A" are partially visible in blue ink.